

prest!



BERBETAN: **ITZIAR MORENO** EUSKAL PRESO OHIA

ERREPORTAJEA: SD DEUSTOREN 110.URTEURRENA BARKUA: PATRICIA MUÑOZ, 20.000 ESPECIES DE ABEJAS FILMEAN

90-241-242-243-244-



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!
urtean 25€

- Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:
- Izen-abizenak
 - Helbidea
 - Telefonoa
 - E-posta
 - Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Jaione Ayestaran - Ibai Etxautz		Iritzia	4
	Aitor Bustamante Gonzalez		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Etokizunak presente baitu iraganeko orbaina			
	<i>Aurten SD Deustok 110 urte betetzen ditu. 2005etik, jokalariek eta jarraitzaileek Madariaga Etorbidean dagoen Etxezuri futbol zelaian bat egiten dute. Denboraldi aparta izaten ari da lehen taldearena, 2015ean Hirugarren Mailara igo zirenetik inoiz baino hurbilago ikusten dute maila-igoera.</i>			6
	San Inazio Ikastetxea		Eskolak	10
	1937ko bonbardaketak eta babeslekuak		Behin batean	12
	25 urte bete ditu Deustuko Jaietako alkatearen kalejirak		Artikulua	14
b	berbetan ITZIAR MORENorekin			
	<i>Itziar Moreno euskal presoak urtarrilean askatasuna lortu zuen espetxean ia hamabi urte egin ondoren. Borrokak eraman zuen bertara, borrokatzen jarraitu du lau hormen artean ere eta borrokatzen jarraitzeko ilusioz eta gogoz atera dela azpimarratu digu.</i>			16
	Industrias BETA (2019)		Irudiak berbetan	21
	JAI HERRIKOIAK Beste urtebetez, Deustuko kaleak ilusioz gainezka			
	ZINEMA la osoki emakumez osatutako lantaldean aritzea "oso berezia" izan da Patricia Muñozentzat			
	PINTXODROMOA Haragiz betetako hostorea - BORDATXO JATETXEA			
	KULTUR TXOTX Danel Abando Olabarri eta Maitte Sarasola Isazelaia			
			harkua bete herba	24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Eredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega, Axular Arostegi, Asier Cobos

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errendoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea, SD Deusto

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.500



Jaione Ayestaran
Kazetaria



Martxoak 8

Historia irabazleek idazten dutela jakina da. Historia gizonek idatzi dutela jakina den bezala.

Horregatik, gaur, nire bigarren abizenean jarri nahi dut arreta. Munduan gehien miresten dudana emakumearengan. Edo hirugarren abizenean. Gerra garaian, ahizpa txikiak hartu eta erbestera behar izan zuen amaren historia datorkit burura. Laugarrena, argi eta urik gabe, herrian hiru seme alaba hezi zituen emakumeak eman dit.

Bakoitzak bere modura egin zuen borroka. Bere eremuan, bere garaian. Eta haiei esker irteten naiz kalera gaur. Ez dute sekula gizonik jo. Ez dute gizonik mendean hartu. Feminismoak ez du gizonik hiltzen, ez du gizonik bortxatzen.

Ez du inor isilarazten eta ez du askatasunik mugatzen. Hala ere, gorrotoarekin lotu nahi dute askok feminismoa. Baina feminismoa ez da gorrotoa. Gure buruari zor diogun maitasuna da.

Angela Davisek esaten zuen feminismoa dela emakumeak pertsonak garelako aldarrikatzen duen ideia erradikala. "Zurea defendatu" aholkatzen zidan amamak, eta aitite bidaltzen zuen erosketak egitera. Orain, emakume guzti horiei zor diedan errespetu eta miresmenagatik irteten naiz kalera martxoaren 8an. Baita egindako lana eskertzeko ere. Eta urtetik urtera argiago daukat: behar dugu feminismoa erdirago ekarri, behar dugu bizitza duina. Ordura arte, kalean ikusiko dugu elkar.



Ibai Etxautz
Sanikoa



Gerra inperialista

Urtebete pasatxo hasi zen Ukraina eta Errusiaren arteko gerra, Europan Balkanetako gerrez gerotik izan dugun gatazka militar handiena. Gerra urrun ikustera ohituta geunden mendebaldarrok gure ateetan entzuten ditugu bonben oihartzunak. Gizarte kapitalista ezaugarritzen duten botere eta diru gose dantzak gerra inperialista berria jarri du martxan.

NATOren blokea ekonomikoki gainbeheran dagoen honetan, gerra behar du bere indarra eta influentzia espazioa mantentzen jarraitzeko. Eta gerrak beti honakoa dakar: langileontzako miseria. Gerraren kostua betikook ordaintzen dugu, eta prezioen gorakadak, interes tasen igoerak edota zerbitzuen murrizketak ez dira zoriaren mendeko. Are

argigarriagoa da Europako estatuek gastu militararekin hartu duten jarrera. Espainiar Estatuko kasuan, adibidez, %23'8 igo du aurrekontu militarra bloke sozialdemokrata. Nabarmena da bloke horrek itxura aurrerakoia izan arren, AEB eta orokorrean mendebaldeko oligarkiaren mesedetan jarduten duela.

Ez dago langileontzako onurarik bloke inperialisten arteko gerretan. Milaka langileren heriotza, eta beste askoren pobretzea besterik ez dakar. Beharrezkoa da NATO eta bere txotxongiloek sustatutako sarraskiari hortzak erakustea, batek daki etorkizun baten bonba horien oihartzunaz gain leherketen uhina ere jasan beharko dugun.



Aitor Bustamante Gonzalez

Jatorria: Deustua

Bizitokia: Dublin, Irlanda

Lanbidea: irakaslea



“Euria baino hotza da okerragoa”

Zer dela eta joan zinen Irlandara?

Lehen Hezkuntzako gradua bukatu nuenean argi nuen gutxienez urte bat etxetik kanpo eman nahi nuela. Ez nekien argi master bat edo zer egin, baina Irlandara maisu lana egiteko aukera ateratziz zaidanean, argi izan nuen aukera hori aprobetxatu behar nuela. Alde batetik, nire gustuko lana delako eta, bestetik, hizkuntzan, ingelesean, trebatzeko.

Zenbat denbora daramazu Irlandan?

Irailean lanean hasi nintzenez, ia zko abuztuaren amaieran etorri nintzen etxebizitza bilatzeko eta nire asmoa da ikasturte bukaerara arte hemen gelditzea.

Zelan egokitu zara?

Gehien kostatu zaidana klimara ohitzea izan da. Entzunda nuen leku euritsua zela, baina euria baino hotza da okerrago eramaten dudana. Negu osoan zehar kristoren hotza egon da eta atzerritarrei alokatzen dizkieten etxeak ez daude oso ondo prestatuta. Izan ere, egun batzuetan, gauean zehar gelako mesanotxean uzten nuen urak goizean izotz geruza zuen gainera.

Zelakoa da irlandar bizimodua?

Gurearekin konparatuz nahiko antzeko da. Gehien harritu nauena

otordu gogor bakarra egiten dutela izan da, afaria, eta hori arratsaldeko 16:30etatik 18:00ak bitartean egiten dute. Nik gure ohitura onekin jarraitzen dut eta bazkaria lanean egiten dudanez, goiz hartu behar dut, baina gero nire merienda eta afari onak egiten ditut.

Zelakoak dira irlandarrak?

Leku guztietan bezala, denetarik topatu ahal duzu, baina orokorrean esango nuke oso jende jatorra dela. Beti errespetuzko tratua jaso izan dut. Oso abegitsuak direla esango nuke.

Zein iritzi dute euskaldunen inguruan?

Askok ez dakite non dagoen Bilbo eta askotan azaldu behar izan dut, baina behin jakinda Euskal Herria dela, hori bai ezagutzen dutela, eta oso atsegina tratatzen naute.

Zelakoak dira atzerritarrek?

Irlandarrak oso pertsona atseginak dira eta Dublinen atzerritarren kopurua itzela da. Gehienak brasildarrak, italiarrak eta espainarrak dira, eta ez dago arazorik.

Irlandako zerk harritu zaitu?

Gehien harritu nauena, alde batetik, lan eskaintza izan da. Gaur egun lanez aldatu nahi badut, badakit

bihar bertan beste lan batean egon naitekela, eta ez hezkuntzan bakarrik, baita beste edozein arlotan ere. Beste aldetik, etxebizitzaren alokairuaren prezioa ikaragarri garestia da. Komuna duen gela bat alokatzeagatik 1.000-1.500 euro hilean ordaindu behar da, eta ez da hemengo soldatak altuagoak direlako.

Aurkitu duzu Euskal Herriarekin antzekotasunik?

Antzekotasun handiena paisaietan topatu ahal dugu, kolore berdea, amildegiak...

Zelan konpontzen zara ingelesarekin? Eta gaelikoarekin?

Etorri baino arinago, nire ingeles maila oso altua ez zen arren moldatu ahalko nintzela pentsatzen nuen. Baina hona helduz gero flipatu nuen. Nik uste dut irlandarren ingelese ulertzeko zailena dela, duten abiadura eta doinuagatik. Baina azken finean, umeekin lan egiten dudanez belarria egin dut eta jadanik ondo moldatzen naiz. Dublinen, atzerritar asko bizi gara, eta gaelikoa ia ez da entzuten.

Etxetik kanpo zer duzu faltan?

Familia, lagunak, orain ospatzen ari zareten Deustuko jaiak, eta janaria, Euskal Herrian askoz hobeto jaten da eta.



1925ean jokaturtako partidu baten SD Deustok ateratako taldea.

ETORKIZUNAK PRESENTE BAITU IRAGANEKO ORBAINA

Aurten SD Deustok 110 urte betetzen ditu. 2005etik, jokalariek eta jarraitzaileek Madariaga Etorbidean dagoen Etxezuri futbol zelaian bat egiten dute. Denboraldi aparta izaten ari da lehen taldearena, 2015ean Hirugarren Mailara igo zirenetik inoiz baino hurbilago ikusten dute maila-igoera.

Testua: Axular Arostegui

Argazkiak: SD Deusto, Txema Luzuriaga

Futbola komunitatea eta identitatea sortzeko bitarteko bikaina izan da beti. Hala, deustuarrontzat ere, lagunak edo senideak tarteko, askori izan zaigu txikitatik tomateroen futbol taldea gertuko.

Lehen taldeko jokalaria den Eder Martínezentzat, Deustuko kaleetan zehar buelta bat ematea aski da herriaren eta futbolarien arteko lotura hori ikusteko: “Ni neu Arangoitikoa izanik, Deustualdean taldeak duen jarraitzaile kopurua argi eta garbi somatu daiteke. Asko eskertzen da, jokalaria bezala, kaletik zoazela auzokideak denboraldiari edo partiduari buruz galdetzea, edo besterik gabe animo mezuak jasotzea”.

Mendeurrena aspaldi igarotako ibilbide honetan, hamaika jokalarik defendatu dute kamiseta gorria. Izan ere, Deustuko Ikastolako, La Salleko, zein beste edozein Deustualdeko ikastetxetan ohiko pausoa da futboleko lehen urratsak ematen ari diren umeen artean, eskolako futbol taldetik SD Deustora mugitzea. Era horretan, egun 2017an jaiotako umeak dira jokalaria gazteenak.

Herri nortasun baten aztarna

Bizkaiko Futbol Federazioko lehendakari izandako Fernando Gutiérrezen arabera SD Deusto 1913an sortu zen. Hala ere, futbol taldeak joko-



SD Deustok Anaitasunaren aurka martxoaren 11 an atera zuen hamaikakoa. Argazkia: Jon Otxoa

tutako partida baten eskuragarri dauden lehen emaitzak, ordea, 1918-1919 denboraldikoak dira. Deustu Bilboko Udalera anexionatu baino lehenagokoa da, alegia.

Deustualdean gaurko egunera arte iritsi den hain ibilbide luzeko futbol talde bakarra bada ere, bidean desagertutako ugari aipatu litezke: Racing de Elorrieta, Ribera Sport eta abar.

SD Deusto, Bizkaiko futbolearen ez ezik, Euskal Herriko futbolearen ere eragile pisutsua izan da. 1924an Alaves futbol taldeak Mendizorroza zelaia inauguratzeko antolatutako ekitaldian, deustuarrak gonbidatu zituzten lehen partida horretarako.

Gerra Zibilaren ostean, 1939-1940koa izan zen Bizkaian jokatu zen lehen futbol denboraldia. Denboraldi horretan bertan, Bizkaiko amateur txapelketa irabazi zuen, San Mameseko zelaian Getxoko Arenas taldeari 2-1 irabazita.

Bere ibilbide oparoan zehar, denboraldi askotan jokatu du talde deustuarrak Hirugarren Mailan, baita gaur egun ere. Kategoriatik horrek, 2021-2022 denboraldiaz geroztik, "Hirugarren maila RFEF" du izena; hain zu-

zen ere, ordura arte existitutako 2. B maila bi zatitan banatu zutelako.

Noranzko berean

Harrobiko taldea izaki, azken urteetatik hona beheargoko kategoriekin koordinazio eta metodologia lanak garatu dituzte. Hala, lanketa horrek berebiziko garrantzia du jokariaren lehenengo urteetan. Horregatik, 6 urtetatik 14ra bitarteko talde guztien



Koordinazio eta Metodologia bilera bat.

entrenatzaileak koordinatzailearekin biltzen dira aldian-aldian, entrenamendu eta estrategia desberdinak eztabaidatzeko. Zehazki, Aritz Goikoetxea, lan horien koordinatzailearen hitzetan: “Entrenamendu bakoitzaren aurretik bilera bat egiten dugu eta etorriko diren jokalarikopuruaren arabera, egun horretan egin beharreko ariketak aukeratzeko ditugu. Gero, hilean behin, bilera orokor bat egiten dugu hilabete horretako helburuak zehazteko asmoz, entrenatzaile bakoitzak ariketa zehatz batzuk proposatzen dituz horiek lortzeko, eta guztion artean aukera aproposena adosten dugu”.

Goikoetxearen ustez, ezinbestekoa da talde bakoitzaren helburuak jokalarien adinaren arabera moldatzea. Funtsean, aurreneko fase hauetan umeei futboleko jolasteko oinarri sendo bat eskaintzen saiatzen dira; etorkizunean, futboleko lehiatzen segitzen badute, joku-sistema desberdinetara ohitzeko harrimintak izan ditzaten. “Gure lan guztiak bi helburu ditu: alde batetik, jokalaritari hezkuntza bat eskaintzea eta, beste aldetik, klubarentzat haren koloreak defendatuko dituzten jokalaririk prestatzea”.

Behin jokalaririk 14 urte bete eta gero, koordinazio ariketa horrek beste neurri batean segitzen du. Entrenatzaile bakoitzak proposatutako sistemaren arabera jokatzen dute taldeek, nahiz eta oinarriko estrategia eta metodologia batzuk partekatu.

Beste behin ere, igoera jomugan

Historian zehar hamaika aldiz jokatu dute tomateroek Hirugarren Mailan. Deustuar askorentzako denboraldi berezia izan zen 2014-2015koa; izan ere, 36 urte eta gero, berriz ere Hirugarren Mailara itzultzea lortu zuen taldeak.

Geroztik, kategoria mantentzeaz gain, hurrengo kategoriarira igotzeko zorian egon ziren orain dela bi urte. Aurtengoan ere, amesteko arrazoiak dituzte ligako bostgarren postuan kokatuta.

Ligako irabazleaz gain, bigarren postutik bostgarrenera sailkatutako taldeek playoff bat jokatuko dute. Horien artean irabazle suertatzen den futbol taldeak kategoriaz igotzeko txartela lortuko du.



2015ean Hirugarren Mailara lortu eta gero ospakizuna. Argazkia: Cantera Deportiva

Martínezek adierazi duenez, taldean behingoa-gatik helburua lortzeko ilusioa somatzen da: “Badakigu ez dela erreza izango, baina geratzen zaizkigun bost partidu horiek indarrez borrokatuko ditugu playoffera iristeko”.

Euskararen alde lanean

Futbol Taldeak Deustualdearekin betidanik izan duen loturari jarraiki, bertako zenbait eskolarekin eta kirol elkarterekin batera, euskara eta kirola uztartzen dituen proiektu baten parte hartuko du.

Egitasmoa Kukulaisi Aisialdirako Topaguneak antolatu du, jokalaria gazteen artean euskara sustatzeko asmoz. Markel Baroja, eragilearen langilearen hitzetan: “Egun, euskara gazteek ikastetxeko zereginekin lotzen dute.

Hortaz, nahi baldin badugu euskara esperientzia positiboekin erlazionatzen hastea, nahi-taezkoa iruditzen zaigu kirolera jotzea; batik

bat, umeen % 85ek kirola egiten duelako eta, gainera, gustoko duten aisialdi esparru bat delako”.

Hala, kirol partiden ostean, umei euskaraz egindako elkarrizketak grabatuko dira eta, ondoren, Uriolak webgunera igoko ditu. Proiektu honetan, umeek ez ezik, entrenatzaileek eta gurasoek ere parte hartuko dute, bakoitzak ardua desberdinak bere gain hartuz.

Berbaizu Euskara Elkartek, bere aldetik, parte-hartzaileentzako “Zergatik ez kirolean?” sentsibilizazio tailerra prestatuko du. Horren harira, Idoi Ugalde, Euskara Elkarteko langileak zera adierazi du: “Kirola umeek bereziki gustokoa duten jarduera bat den heinean, esparru-estrategikoa deritzogu euskararen zabalpenerako.

Horregatik, gu gurasoekin eta zuzendaritza batzordeetako kideekin biltzen gara, gisa honetako testuinguru informaletan euskara bultzatzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko”.



Kukulaisi Aisialdirako Topaguneak kirola eta euskara uztartzen dituen proiektuaren aurkezpena.



LEHEN SOROSPENAK, GUZTION ARDURA

San Inazio Ikastetxean, Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek, Lehen Sorospen ikastaro bat jaso dute gurasoen eskutik. Eskolak bere lehenengo pausua eman du larrialdi baten aurrean prest egoteko.



Testua eta argazkiak: San Inazio Ikastetxea

Eskola, bizitzarako prestatzen gaituen lekua dela esaten da, edo horrela izan beharko lukeela, eskolak eta gizarteak lotura zuzena izan behar dutelarik. Ikasleak prest egon behar dira errentaren aitortpena egiteko, autoaren gurpila aldatzeko edo zergaitik ez, bizitza bat salbatzeko. Horregatik eskolako guraso batzuk Lehen Sorospen ikastaro bat ematea eskeini zigitenean segituan onartu genuen.

Orain dela gutxi arte, Lehen Sorospenak profesionalen eskuetan baino ez zeuden. Gaur egun, helduen artean ere lantzen ari da, edonoren eskuetan egon baitaiteke bizitza bat salbatzea. Eta hori da guraso talde honek helarazi digun mezua, umeak ere erabakigarriak izan daitezkeela, alegia.

Horregatik, ikastaroa 1.mailatik 6.mailarainoko ikasleei zuzenduta egon da. Es-

kolako ikasleen hiru amek, mediku eta erizain lanetan dabiltzanak, bere denbora librean ikastaroa diseinatu eta eskolan aurkezteko esfortzua egin dute.

Irakasle lanetan bizitza osoan ibili izan balira bezala, adin bakoitzerako moldatutako jarduerak antolatu dituzte eta modu ezin hobean ikasleei Lehen So-



rospenen garrantzia eta eginbeharrekoak irakatsi dizkiete. BAS jokabidea (Babestu, Abisatu, Sorotsi), BBB-a (Bihotz-biriketako berpiztea), alboranzko segurtasun-posizioa, kolpe intereskapularrak, Heimlich maniobra eta beste hainbat garrantziko teknika ikasi dituzte. Horretarako, manikiak eta desfibriladoreak izan dituzte eskura (ikastaroetan erabiltzen direnak).



Txikienek, etxetik pelutxeak ekarri dituzte haiekin praktikatzeko, nagusienek ordea eman daitezkeen diren larrialdizko egoerak antzeztu dituzte, ikasitakoa praktikan jarriz.

Pablo Sudoku-ren RAP estiloko abestia ere entzun izan ahal da eskolako ikusentzunezko areto inguruan, zeinek larrialdi baten aurrean nola erantzun behar den azaltzen duen erritmo eta mezu oso gogorra errazarekin.


Ikastaro amaieran, atera ditugun ondorioen artean, batekin geratu gara: desfibriladorea ezinbestekoa da bihotz-arnaseko geldialdi baten aurrean pertsona baten bizitza salbatu ahal izateko.

Espazio publiko askotan aurkitu ditzakegu: futbol zelaietan, metro geltokietan, museoetan... **NOIZKO ESKOLETAN?**



1937KO BONBARDAKETAK ETA BABESLEKUAK

Heriotza airetik heldu zen gurea 1936 eta 1937 urteetan. Sasoi hartan Condor Legioarenak ziren gure zeruak. Eta deustuarrek lurpean gorderik eutsi zieten bombardaketei. Izuak, inoiz baino gehiago, hegari egiten zuten.



Testua: Hektor Ortega


1936ko estatu kolpea Espainiako Armadaren porrotarekin amaitu zenean, gerra zabaldu zen Espainiako Errepublikako lurraldeetan barrena. Gerra esaten diogu, baina hobe genuke esatea Armada profesionalaren atalik indartsuenak su eta gar jo zuela aurre egin izan nahi zioten guztien kontra, izan Armada hartako gainerako unitateak, izan armak eskuetan (eta sarritan armarik gabe) faxismoa geldiaraztera abiatu ziren langile eta nekazariak.

Hortaz, nagusitasun militarra matxinatuen alde izanik, ez gara harririk, Euskal Herriari dagokionez, Nafarroa osoa eta Araba eta Gipuzkoa gehiena mendean hartzeko hilabete pare bat besterik ez zutela behar jakitean. Geldiezinak ziruditen, Lezo Urreizietan santurtziar mugalariak isilpean ekarritako armez Intxortan (Elgeta) geldiarazi zituzten arte.

Nagusitasun militarra erabatekoa zen euskal fronteetan: artilleria, armak, hornidurak, formakuntza, komunikazioak, antolakuntza... Eta hori gutxi baliatuz, potentzia faxisten laguntza zeukaten. Hala Italiak nola Alemaniak gogotsu sorotsi zioten Francisco Francok gidatzen zuten armadari.

Bereziki airean eman zioten babesa: Aviazione Legionaria eta Condor Legioa buru belarri jardun ziren matxinatuen alde.

Tarte batez, zerekin erantzun eduki zuten anti-faxistek. 1937ko urtarrilaren 4an, arratsaldeko hirurak aldera, Condor Legioko bederatzizko hegazkin bonbaketarik eta hamabi ehiza-hegazkinek Bilbo alde eraso zuten. Gutxienez zazpi herritar hil zituzten bonbardaketa hartan. Baina laster agertu zen Felipe del Rionen ehiza-hegazkin multzoa erasotzaileak uxatzeko, baita lortu ere, etsaien hiru



hegazkin (bonbaketari bat eta ehiza-hegazkin bi) eraitsi eta gero. Bonbaketaria Arraitz aldean jausi zen, Pagasarriko oinetan. Parte ofizial baten arabera, beste abioietako bat Enekurin erori zen.

Baina erasoak ugaritu zirenean, hain zuzen ere 1937ko urtarriletik aurrera, alemaniarrek eta italiarrek erabateko nagusitasuna lortu zuten. Felipe del Rio bera, euskal hegazkinlariaren heroia, apirilaren 22an eraitsi zuen Condor Legioak Lamiako gainean. Udaberri hartan etorri ziren bonbardaketarik gehienak, odoltsuenak, suntsitzaileenak.

Deustuko babeslekuak

Zerua behin betiko faxisten eta nazien eskuetan gelditu zen apiril hartan bertan, Frente Popularreko Deustuko komiteak txostena bidali zion Bilbokoari bonben aurkako babeslekuen berri emanez. Honako hauek ziren. “San Pedro” auzoan: Artxandako tunela (indusketak hasi berriak zeuden), Deustuko zubiko behealdea, Ibarrekolandako tunela (trenbidea), Deustuko tren geltokiaren azpiko pasabidea eta hormigoizko eta zementuzko etxebizitza bloke bi (bat Elejabeitia etxea, plaza ondoan). Babesleku guztiak seguruak ziren eta herriartar guztiak hartzeko lain.

“Barrios de Madariaga y Tellaheche” (alegia, Madariaga etorbidearen ingurua, Ibarrekolanda eta San

Ignazio): Ibarrekolandako tunela eta pasiotarren komentua (San Felicisimo). Babesleku horiek ere nahikoa omen ziren “aunque algo distanciados de las casas por pertenecer estos barrios a la zona rural”. Elorrietan saneamenduko sotoak eta Lutxanako tunela (trenbidea) zeuzkaten erabilgarri. Zorrotzaurren, berriz, Lanteroren egur lantegian atondutako babeslekua baino ez.

Baina egoerarik kritikoena Erriberan zegoen. Baziren lantegietan egokitutako babeslekuak: Alejandro Bengoetxea, Torre, Bereciartua eta, batez ere, Artiach. Teorian, nahikoa izan behar ziren, baina ez. “Sirenak entzuten direnean”, idatzi zuten txostenean, “Artiacheko babeslekua baino ez dago”. Zergatik? Gainerakoak oso txikiak zirelako. Berehala betetzen ziren eta, horren ondorioz, gizon, emakume eta ume andana Erribera alderik alde ibiltzen zen zoroen pare aterpe bila.

Arriskugarriena, hala ere, beste kontu bat zen. Andre eta gizon asko, sirenak entzutearekin bat, pasaiako bateletara joaten ziren ibaiatz bestalde-ra igaro eta trenbidearen tunelean babesteko asmoz. Batelariei jaramon egin barik, jende-tropel larrituak ontziak tontor eta montor bete eta Ola-beagara pasatzen ziren, uretan binbili-bonbolo eta baldar, hegazkinen mende.



Kalderapeko

euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



25 URTE BETE DITU DEUSTUKO

Deustuko Jaietan ospatutako alkatearen kalejirak 25 urte bete ditu aurten. 1998. urtean Andoni Luzuriagak bultzatutako ekimena gure herriaren memoria historikoa bizirik mantentzeko ahalegina da eta hain zuzen ere, horregatik doakio merezitako omenaldia.



1998ko alkatearen kalejira amaierako argazkia.

Ez da gutxi Luzuriagak garai bateko elizatearen inguruan bildutako informazioa, eta berak PREST! aldizkariari lagatuko datu guztien zertzelada batzuk aurkituko dituzue datozen lerroetan.

Honako hau irakur daiteke alkatearen kalejiraren historia azaltzen duen esku-orrietako batean: “Jakina da XVII. mendetik aurrera Bilboko Udaleko segizio batek urtero Deustuko elizatea zeharkatzen zuela zaldi gainean. Bisitetan, inguruko tabernak, errota, harategiak eta hiltegiak bisitatu zituzten, eta horrez gain, garai hartako Luzarrako San Pedro eta San Silvestre jaietako egun nagusietan ere izaten ziren, zer eta erromerien buru.

Alabaina, Deustuko elizateko bizilagunentzako bisita horiek iraingarriak ziren, eta, beraz, erresistentzia pasiboa eginez erantzuten zieten Bilboko Udaleko ordezkari, jaietako solemnitatea beste egun batzuetara mugituz. Adibidez, 1714. urtean

iskanbila handiak izan ziren segizio hari aurre egiteagatik, eta ondorioz, Deustuko errejidoreak espetxeratu zituzten. Ia 140 urte beranduago, bisita horiei bestelako erantzun bat emateko asmoz, 1846. urtean ospatu zen Deustuko alkatearen lehen kalejira, elizateko bi aguazilak alboan zituela, zilarrezko hiru hegaleko txuzo banarekin”.



1998ko alkatearen kalejira.

JAIETAKO ALKATEAREN KALEJIRAK

Ez dakigu zenbat urtez luzatu zen Deustuko alkatearen kalejira hura. Alabaina, ziurta dezakegu azken 25 urte hauetan antzeko ekimen batek Madariaga Etorbidea zeharkatzen duela urtero martxoaren 19an. Izan ere, Deustuko herriaren memoria historikoa ahanzturan ez geratzeko helburuarekin birsortu zuen Luzuriagak aipatutako ekimena, baita honen ustez “1925. urtean gauzatu-tako anexioa, indarrez, demokraziarik gabe eta herriari galdetu gabe egin zela gogora ekartzeko”.



Aurtengo alkatearen kalejira.

1998ko lehen kalejira hartako alkatearen arropa (kapa eta xistera), hiru hegaleko txuzoa, aguazilen larruzko bandak eta plazan jendeari banatu zitzaion gazta, ogia eta ardoa Deustuko Jai Batzordeak ordaindu zituen.

“Urtebete beranduago, 1999an, antzeztu zen lehen aldiz desagertutako Deustuko Emakumeen Aurrekua, hots, Deustuko emakumeek modu herrikoian egindako dantza. 150 urtez ahaztuta egon ondoren, dantza hau berreskuratu, birsortu eta taularatu ahal izan zen, eta auzoko memoria historiko eta kulturala bizirik mantentzeko ahaleginean ari den jende askoren ahalegin eta iraunkortasunari esker, eta Iñaki Irigoien soziologo eta ikertzailearen laguntza paregabearekin”.

Laburbilduz, 1999. urtetik aurrera, eta Deustuko jaien baitan, urtero San Jose egunean Deustua-

rion kalejira alaia ospatzen da San Felizisimotik abiatuta. Deustuko Udal korporazioarekin, alkatea buru, herriko kaleetatik gaiteroak, txistulariak eta dantzariak ibiltzen dira. Done Petri plazan bertan amaitzen da alkatearen bisita, eta zuzenean, Bihotz Alai dantza taldeak bultzatzen duen emakumeen aurrekuari ematen zaio hasiera.

“Bai guretzat, bai gure jaiak ikustera datozen kanpotarrentzat, alkatearen figurak herri independente bat ordezkaten du; argi gera dadila ez garela ez auzo ez barruti bat; ez gara Bilbo, gure ordezkaria baitaukagu. Bilboko alkatea jada ez dator garai batean egiten ziren bisitak egitera; orain gure alkateak egiten ditu. Mezua politikoa eta kulturala da; ordezkari horrek irautea eta etorkizuneko bestela ekimenak berreskuratzen jarraitzea lortu behar dugu” irakur daiteke Luzuriagak idatzitako esku-orrian.



Aurtengo alkatearen kalejira hasierako argazkia.

berbetan

ITZIAR MORENOrekin

Euskal preso ohia

“Kartzela etsaiaren etxea

Itziar Moreno euskal presoak urtarrilean askatasuna lortu zuen espetxean ia hamabi urte egin ondoren. Borrokak eraman zuen bertara, borrokatzen jarraitu du lau hormen artean ere eta borrokatzen jarraitzeko ilusioz eta gogoz atera dela azpimarratu digu.



da, hemen edo han”

Hogeita zortzi urterekin espetxeratu zintuzten. Orain berrogeirekin etxera itzuli zara. Nola sentitzen zara?

Poztasun erraldoi eta energia txute itzela sentitzen dut. Kalera berriro egokitzeak baditu bere zailtasunak, noski, baina une honetan sentitzen dut banoala barruan nituen amets txikiak eta handiak betetzen. Era berean, oso presente dut borrokak eraman ninduela kartzelara eta kalean borrokatzen jarraitzeko gogoz eta ilusioz nago.

Zigorraren zatirik handiena Frantziako Estatu espetxeetan egin duzun arren, urriaz geroztik Zaballan (Araba) egon zara. Duela gutxi 22 urteko preso bat hil da bertan.

Bai, kartzelaren errealtate gordina da hori. Oso arrotza egin zait kartzelan egotea nire herrian. Jakina nahi genuela Euskal Herrira etortzea, batez ere senide eta lagunengatik, baina kartzela, etsaiaren etxea da nola han hala hemen. Nik ez dut kartzela eredu eta polizia ereduaren inguruan eztabaidatzeko beharra ikusten. Nik borrokatu dut kartzelarik ez egoteko eta polizia ez egoteko. Eta, zalantzarik gabe, inolako autoritarismorik gabeko Euskal Herri eta mundu aske baten alde jarraituko dut lanean.

Emakumeen kasuan, jazarpen eta zapalkuntza hori gizonezkoena baino handiagoa da.

Bai, Zaballan adibidez, zigortu ninduten derrigorrezkoak ez diren moduloko garbiketaren

lanak ez egiteagatik. Badira, nik bezala, kontzientziagatik edo arrazoi politikoengatik holakoak egiten ez dituzten gizonezkoak baina beraiek ez dituzte zigortzen. Orokorrean, emakumeak kontrolatuago egoten gara (nola janzen garen, nola barre egiten dugun, altuegi hitz egiten dugula, eskandaloagoak garela..). Berrezi nahi gaituzte emakume otzan eta menpeko bihur gaituzten.

Espetxean zeundela, Oier Gomez, zurekin atxilotutako kidea hil egin zen eta lagun batek istripua izan zuen zu bisitatzerako zihoala. Pertsona gogorragoa bilakatzen zaitu kartzelak?

Zer da gogorra izatea? Nik uste dut bizitzaren hainbat alorretan bezala esperientziatik eta bizipenetatik ikasten dugula eta horrek guztiak garena egiten gaituela. Badago gogortasunarekiko gaizki ulertu bat gure jendartearen, maskulinitatearen ideia oker horren barruan. Niretzako pertsona indartsua izatea beste gauza bat da: sentibera izatea, inguruekiko kezka izatea edo arazoei aurre egitea. Oierrekin hori ikasi nuen ere, asko akordatzeko naz beragaz nire egunerokoan.

“Badugu zerbait kartzelan gaudenok zer eta bizitzatik aske omen dabiltzan asko ez duten zera hori”. Argian idatzi zenuen artikulu bateko esaldia da. Zer da “zera” hori?

Artikulu horretan nire hitzak josi nituen hainbat emakume borrokalarien hitzekin.

“Kalera berriro egokitzeak baditu bere zailtasunak, noski, baina une honetan sentitzen dut banoala barruan nituen amets txikiak eta handiak betetzen”

▷ ▷ SAKONEAN

“Sormena askatzeko eta aldarrikatzeko erabiltzen dut”

Martxoaren 8aren abiaburua kontatzen duen “Josi eta Josi” ipuina argitaratu berri duzu.

Nire lehenengo argitalpena da eta oso hunkigarria da jende askoren laguntzari esker atera den lan hori kalean ikustea. Barruan dauden emakume borrokalariei eskaintzen diedan lana da.

Borroka, feminismoa eta sormena zure bizitza josi duten elementuak dira?

Erabat. Hor kokatzen dut nire burua zalantzarik gabe. Nire militantziaren fase ezberdin guztietan presente egon dira eta orain kalean nagoela inoiz baino ziurrago eta harroago nago horrekin eta horretan jarraitzeko.

Sorkuntza ihesbidea izan da zuretzat?

Jakina. Arte Ederrak ikasi nituen eta ilustrazioa, dantza, idazketa zein musika barrukoa askatzeko eta aldarrikapenerako tresna dira niretzat. Zalantzarik gabe, kartzela urte hauetan borrokarako lanabesak izan dira.

Espetxean zeundela zure irudiekin hainbat erakusketa antolatu dira.

Kanpokoek lagundu didate horretan; presook barre egiten dugu, edozein lan egiten dugula, etxeko eta ingurukoek beti itzelezko artelantzat hartzen dituztela. Maitasuna da hori; Nik badakit ez dudala beste munduko ezer margotzen baina iruditzen zait nire lanak baduela funtzio politiko bat.



Horiek Olga Benarioren hitzak dira. Askatasunarekin lotutako esaldia da. Topikoa dirudien arren, lau paretan artean itxita egoteagatik zure burua ez du zertan preso egon. Txakurren eguneroko ankerkeri eta umilazio saiakerei duintasunez aurre egiten eta borrokari, bizi-pozari eta elkartasunari eusten ari zarenean, bihurrikeriaz ohartzen zara askea zarela. Askotan, kalean, lanarekin edo beste kontu batzuekin harrapatuta bizi den jendea baino askoz ere askeagoa.

Sormenaren bidez kartzelako hormak gainditu dituzu. Baita afektibo-sexualak ere. Tinder ligatzeko aplikazioan alta eman eta ekintza porno-terroristatzat hartu zenuen.

Bai, eta harro nago! Oso polita izan zen, txera bereziarekin gogoratzen dudana ekimena da. Horrez geroztik, gutun piloa jaso nituen, emakumeenak gehienak, zoriontzeko eta animoak emateko espetxean bizi dugun errealitate bat azalarazi nuelako. Ligatzeko gutunak urriagoak izan ziren ordea... ez ote zen helburua ondo ulertu? Kar, kar!

Eta kalean, muga asko ditugu oraindik harreman kontuetan? Holako aplikazioak lagungarriak dira?

Bai eta ez. Kontua da, nola eta zertarako erabiltzen ditugun. Irakurri izan dut, eta ideia horrekin ados nago, gorputzen merkantilizazio bat eta harremanen kontsumismoa eragiten dutela eta, aldi berean, ezezagunekin ligatzea morboa ematen didan zerbait ere bada. Gazte militanteak ginenean sexu askatasuna praktikatzen genuen eta ematen du ugaltzeko adina heltzen denean, erloju biologikoak hori esaten omen duelako, pragmatikoagoak bihurtzen dela ezkerreko baloreak dituen era. Eta ez soilik arlo horretan, militantziarako, kontsumismorako, bizitza ulertzeko... ere aldaketa hori ematen dela iruditu zait, adierazgarria da. Bestalde, gonbitea botako nioke jendeari preso daudenekin dauzkagun mugak apurtzeko, ligatzeko eta harremanen bitartez harresiak apurtzeko.

Herria eraikitzeo ilusioa eta indarrarekin ikusten duzu jendea?

Ilusioz ikusten ditudan proiektu autogestionatu txiki eta handi asko sortu dira. Energia-tik elikadurara, hezkuntzatik sexualitatera... Txinaurri lan ederra eta baliogarria egiten ari dela ikusten ari naiz. Gazteak kaleak apur bat astintzen. Nagusiak ere guri kokotekoak ematen eta borroka zer den erakusten. Bo-

rroka polit horietan murgiltzeko gogoz nago. Aurrekoan Martxoaren 8ko manifestazioan egon nintzen eta oso hunkigarria izan zen ikustea borroka feministak eman dituen emaitzak, baita oraindik egiteke dugun bidea ere.

Nola bizi dituzu gaur egungo errealitate politikoan ezkertiar eta abertzaleen artean ematen ari diren ika mikak?

Egiari zor, pena eta frustrazio puntu bat badut gai horrekin. Ataka hori gainditzeko garaia badela iruditzen zait. Pertsona kritikoak, borrokalariak eta iraultzaileak baldin bagara, ezin gara gure artean ditugun desadostasun horietan geratu. Ez gara egongo sekula den-denean ados, baina helburu batzuen alde borrokatzen ari baginen, helburu horiek oraindik betetzeko daude; asko dago egiteko eta uste dut bidean elkartu gaitzkeela; betiere bakoitzaren moduak eta aldarrikapenak errespetatuz, eta behar denean batera joz.

Barrukoentzako mezurik?

Barrukoentzat nire agurrik eta omenaldirik beroena. Eta, jendarteari, esan kartzelan dugun kapital politiko eta jende erraldoi bezain baliogarri hori herria eraikitzen jarraitzeko kalean behar dugula. Aske izateko sistema eraldatzea ezinbestekoa da eta horretarako borrokan jarraitu behar dugu.

“Gonbitea botako nioke jendeari preso daudenekin dauzkagun mugak apurtzeko, ligatzeko eta harremanen bitartez harresiak apurtzeko”



OBRAK

Bilboko Udalak amaitutzat eman ditu Deustuko Zubiko obrak

Martxoko lehen egunetan Deustuko Zubian gaueko zirkulazioa eten zituzten lanak behar bezala amaitu dira. Bizilagunek zubiaren ezohiko gorabeheraz ohartarazi eta gero, teknikari espezialistek egituraren ingurunea aztertu zuten. Hauek mugimendu horren erruduna sarraila batzuen desplazamendua zela zehaztu zuten. Dirudienaz, arazoaren jatorria egituraren bokazio mugikorrean dago: zubia irekitzeari utzi zitzaionean, zubia osatzen duten bi taulak altzaruzko barra batzuekin soldatu ziren erdialdetik, sarraila moduan. Horrenbestez, barra metaliko horiek birkokatu dira ezohiko mugimendu horiek saihesteko helburuarekin, eta zubiak normaltasuna berreskuratu du.

KIROLA


Dena prest 2023ko Ingeniariak-Deusto estropada hasteko

Martxoaren 31an, Deustuko Unibertsitateko eta EHUko Ingenieritza Fakultateko ikasleen arteko 41. norgehiagoka jokatu da. Orain arteko edizioetan, Deustuk 25 aldiz irabazi du eta Ingeniariak, aldiz, 15. Beti bezala, aulki mugikorreko ontzien arteko arraun lehiaketa izango da. Ibilbidea, bere aldetik, 7.408 metrokoa izango da eta arraunlariak Erandioko Altzagatik irtengo dira, Bilboko Udaletxearen parera iritsi arte. Aurtengo edizioari dagokionez, nabarmentzekoa da, azken urteetan ez bezala, Deustuko Arraun Taldearen kategoria txikietan aritutako bi arraunlarik parte hartuko dutela: Urdax Antepara (Zierbanako arraunlaria) eta Guillermo Ranero (Deustuko traineruan diharduena).

BERTSOLARITZA


Maiatzean hasiko 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren sailkapen fasea

48 bertsolarik parte hartuko dute "Udabarría bertsotan" izeneko lehen fase honetan. Orotara, zortzi saio jokatu dira Bizkaiko udalerririk desberdinetan: Urdulizen, Diman, Aulestin, Busturian, Durangon, Muxikan, Sopelan eta Zallan. Parte hartzen dutenen artean, puntuazio altuena lortzen duten lehenengo 13ak sartuko dira gutxienez (Bizkaiko Bertsolari Txapelketako izen ematearen arabera). Ondoren, 2021ean finalurrekoetan eta finalean kantatu zuten bertsolariak zuzenean sartuko dira Udazkeneko fasean. Aurtengo edizioan, Elorri Bertso Eskolako bi kidek izena eman dute: Maite Sarasola eta Enare Muniategi.


KULTURA

Mikroipuin lehiaketa itzuli da!

Aurten ere, gure inguruko ikasle askok parte hartu du literatura sustatzeko Berbaizuk eta eskolek antolatzen duten mikroipuin lehiaketan. Ikas-mailaren arabera lau kategoriatan banatua, bakoitzeko irabazlea eta aipamen berezia aukeratu ditu epaimahaiak, zeinak ez duen lan erraza izan, doinu anitzeko istorioak plazaratu baitituzte autoreek: beldurra, fabulak, gaztaroa, adiskidetasuna... gai sakonak izanik ere, umoretik hurbildu denik ere bada. Idazkiak soilik ez, azala ikasleen sorkuntzetatik aukeratua izan da ere, eta haien diseinuek apainduko dituzte azala, kontrazala, eta barneko lehen orria. Irabazleentzako saria euren aukerako liburua izango da, eta guztiek irakurri ahalko dute haien mikroipuinak laster argitaratuko den liburuxkan.





Urtea: 2019

Txema Luzuriaga

Industrias BETA


Hotzean estanpatutako piezak egiten dituen Beta Industriak enpresa gaur egun Elorrión aurkitu dezakegu. Bilbon jatorria duela jakina den arren, oraindik bizirik dirauen Zorrotxaurreko industria eraikin batean du egoitza; hain zuzen ere, Francisco García Alquegik eta Juan Jose Abrisketak 1951. urtean sortutako erakundea. Hirigintzari dagokionez, Beta, Fundiciones Marcaibe eta Zamacona ontziola zahar-raren artean sortzen zen itearrerik gabeko kalea nabarmendu behar dugu, gunere bereizgarria baitzen. Eraikuntzak duen kalitateak, eta bi eraikuntza faseek duten bateragarritasunak, euskal industria ondare osoko eraikinek azpimarragarrietariko bat bihurtzen dute.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
billbokoaldizkariak@gmail.com

△ ∇ △ ∇ △
TATTOO STUDIO


Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com 


Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4


Yoki Berrri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu 

artez euskara zerbitzua  
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play  App Store
ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA BFA

 Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltea
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elekttrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Deustuko jaiekin, hasiera eman zaio aurtengo herri eta auzoko jaien segidari. Zer nahiago duzu jaietan, egunean zeharreko ala gaueko plana? Zergatik?



Maite Bilbo

Nik jaietan egunean zeharreko planak nahiago ditut. Plan hauetan adin desberdinetako pertsonak elkartzen dira era programazio aldetik ere jarduera gehiago eskaintzen dira. Gainera plan horiek beti luzatu daitezke...



Ibone Bilbo

Nik nahiago dut eguneko jaiak gauza desberdina-ngoak egiteko aukera ematen duelako eta giro osasuntsuagoa egoten delako. Hala ere, azkenean beti egiten dugu gauerako plana ere eta oso ondo pasaten dugu.




Unai Deustu

Deustuko jaietan lagunen artean egunez irtetzen gara bai ala bai; baina hala ere, ostiral gauak oso gustuko ditugu eta zorionez edo tamalez ordu txikiek harrapatzen gaituzte



Iratxe Bilbo

Azkenaldian eguneko plana nahiago dut, jai herrikoetan egunean zehar programazio interesgarria izaten da: bertsoak, kontzertuak, dantzak, gastronomikoa, herri bazkaria....eta horrek jaiak beste era batera gozatzeko aukera ematen du.



Ibai Urritzola

Egunean zeharreko planaren aldekoa naiz. Antolatzen diren ekitaldi eta ikuskizunek kutsu berezia daukate niretzako; auzoaren osasunaren diagnostiko bat egiteko aukera ematen dizu, baina horretaz aparte, auzokideek beraien artean beste motatako erlazioak eraikitze-ko aukera ematen duela uste dut. Auzo ekimen eta antolaketa-aren bitartez beste motatako saretzeak sortzen dira, egunerokotasunean eraikitako erlazio monotonoeatik haratago joaten direnak.



Ander Deustu

Egunekoa nahiago dut. Adin guztietako jendea batzen da eta giroa sanoagoa eta koloretsuagoa da. Egunekoa herrikoia iruditzen zait.



harkua bete herna

>> JAI HERRIKOIAK

BESTE URTEBETEZ, DEUSTUKO KALEAK ILUSIOZ GAINEZKA

Deustuko Jaiak bukatu dira. Irriz eta algaraz betetako bi asteren ostean, ekaitzari barealdiak darraion bezala, bueltatu da berriz ere lasaitasuna Deustuko kaleetara.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Deustuko Jai Batzordea

Martxoaren 17an, ostirala, deustuarrek gogoz ekin zieten Deustuko Jai Batzordeak antolatutako festei, Done Petri plazan botatako txupinazoaren bitartez. Hala, jaietan parte hartu duten konpartsa eta koadrilla desberdinek musikaz jositako jaitziera egin zuten, Euskalduna zubiaren azpian kokatuta zegoen txosnaguneraino. Era horretan, bi astez luzatu diren ospakizun boladari eman zitzaion abiada.

Lehenengo asteburua

Larunbatean, martxoaren 18an, goiz goizetik umeentzako jarduera ugari eskaintzeaz gain, Done Petri plazan “Munduko Arrozak” izeneko txapelketa gastronomikoa ospatu zen; bertan, kultura desberdinetako partaideak aritu ziren.

Ekitaldiaren helburua gizarte harremanak ehuntzea eta sortzea izan zen, “indarkeria, xenofobia, ekintza sexistak eta homofoboak erabat gaitzetsi eta giro positibo eta errebindikatzailan oinarrituz”. Ondoren, gaueko ordu txikiak arte luzatzeko aukera izan zuten parrandazaleek Deustuko zenbait zonaldetan.

Hurrengo egunean, martxoaren 19an, Deustuko Udal Korporazioarekin batera, kalejira alaia ospatu zen musika giroan. Ostean, jarduera anitzak eraman ziren aurrera, Deustuko emakumeen aureskua esaterako.

Lehen asteburuari amaiara emateko, eskupilota ikuskizuna izan zen Deustuko frontoian: lehenik, jaietako pilota txapelketaren finala; eta bigarrenik, emakumeen arteko partida profesionala.

Bigarren asteburua

Jaien azkeneko egunak izanik, ostegunean, martxoaren 23an, eman zitzaion abiada bigarren aste-ko ospakizunei. Bada, Berbaizu Euskara Elkarteak antolatuta, “Mingainluze Txapelketa” ospatu zen; “Mihiluze” telebista programaren eredia jarraitzen zuen jokua, alegia. Jarraian, aurtengo ediziooko bertso saioa egin zen Alaia Martinen, Andoni Egañaren, Saioa Alkaizaren eta Mikel Aiartzaguenaren eskutik.

Bigarren ostiralean, martxoaren 24an, azken edizioetako ohiturari jarraiki, “Sonbrerü Gaua” ospatu zuten. Horrela, bertaratu zirenek zenbait jarduera musikatuz gozatu ahal izan zuten, sonbrerü original ezberdinek jai giroa apaintzen zutelarik. Larunbatean, egun osoko azken festa eguna izaki, goiz goizetik hasi ziren ekitaldiak. Goizean zehar, besteak beste, erraldioen topaketa izan zen bereziki aipatzekoa. Eguerdian, tomatea osagai nagusitzat hartzen zuen txapelketa gastronomikoa antolatu zen. Arratsaldean, ostera, mota desberdinetako jarduerak eraman ziren aurrera, adibidez: Herri Krosa, Maddi Pirata antzerkia, Bertsio gaua eta Playback lehiaketa. Jarraian, gaua luzatzeko kontzertu ugari antolatu ziren.

Jaiei amaiara emateko, makina bat ekitaldi ospatu ziren Done Petri plazan. Hala, 33 kuadrila eta konpartsa desberdinek parte hartu zuten aurtengo jaien Tortilla Txapelketan. Azkenik, tomatearen erreketan zein sarien banaketa egin zuten. Halaber, jaien azken uneak zukutzeko gogoz, batek baino gehiagok berandura arte luzatu zuen gaua.



ARGAZKI GALERIA



>> ZINEMA

IA OSOKI EMAKUMEZ OSATUTAKO LANTALDEAN ARITZEA “OSO BEREZIA” IZAN DA PATRICIA MUÑOZENTZAT

Nazioarteko hainbat sari garrantzitsu jaso ditu “20.000 especies de abejas” filmak eta mugarrira ezarri du euskal zinemagintzan. Pelikularen scripta Patricia Muñoz deustuarra da, eta berak kontatu dizkigu lan honen nondik norakoak.



Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkiak:** Arene Gabiña

Sariak jaso eta jaso dabil Esti Urresolaren “20.000 especies de abejas” filma. Zuzendari audioarraren opera prima Berlinale zinema jaialdi ospetsuan estreinatu zuten eta hainbat sarirekin bueltatu zen lantaldea Euskal Herrira, tartean, zinema zaleen arreta bereziki piztu zuena: Sofia Otero bederatzi urteko aktore gazteak aktore onenaren Zilarrezko Hartza eskuratu zuen protagonistaren paperean

egindako lanagatik. Berriki jakin dugu, gainera, Malagako zinema jaialdian pelikulak film onenaren saria jaso zuela, eta Patricia Lopez Arnaiz antzezleak aktore-multzo onenaren saria eskuratu zuela.

Pelikularen lantalde teknikoan deustuar bat dago: Patricia Muñoz Pipaon. Script lanetan aritzen da

P6
SAITE BERRIARRA
CORPORA 100%



REY DESNUDO, CHICO MUERTO

apirilaren 21etik maiatzaren 7ra

Dramaturgia
eta zuzendaritza
INIGO COBO

Antzezleak
**SARA BARROETA, JON CASAMAYOR,
ITXASO GIL, JOSH ORTIZ DE ZÁRATE,
ARNATZ PUERTAS**

www.pabellon6.org

eta pelikula honetan lan egin izana berezia izan da berarentzako, lantaldearen izaeragatik. Izan ere, ia lantalde tekniko eta artistiko osoa emakumeek osatu dute, eta horrek bizipen bereziak eragiten dituela azaldu du zinemagile deustuarrak.

Zein da baina, script baten lana? Muñozek azaldu-ta, bere lana pelikuletan jarraitutasuna mantentzea da. Normalean, leku berean gertatzen diren eszenak jarraian grabatzen dituzte, narrazioan jarraian ez badoaz ere. “Desordenaturik grabatzen da eta gero muntaketan ematen zaio jarraitutasuna”, azaldu du. Hortaz, bere lana da grabaketan ziurtatzea gerora muntaketa ondo joango dela.



Proiektu berezia

Patricia Muñozek berak azaldu digunez, lan honen berezitasunetako bat izan da protagonista nagusia aurretik zineman esperientziarik ez zuen bederatzit urteko neskato bat zela. Muñozen lana aktoreek egiten dituzten jarraitutasun akatsak zuzentzea denez, adierazi du hurrei zuzenketak egiteko beste bide batzuk bilatu behar izan zituela.

Gainera, argitu du Urresolak asko jokatzeko duela inprobisazioarekin eta aktore ez profesionalekin, “naturaltasuna bilatzeko”. Horrek eragin zuzena du bere lanean; izan ere, hartualdi batetik bestera aktoreak desberdin aritu daitezke, baina kasu de-

netan egoki, eta horrek zuzenketak egitea zailago bihurtzen du.

Lan honetan aurkitu duen beste berezitasun bat aurretik aipatutakoa da, hots, ia lantalde osoa emakumez osatuta egon dela. “Horrek testuinguru bat sortzen du beste momentu batzuetan egiten ez dituzun gauzak egiten ditugulako. Nahiko berezia da eta horrek eragina du historia zelan kontatzen den”, azaldu du scriptak.

Hasieratik nabari zuen

Patricia Muñozi asko gustatzen zaio Esti Urresolak istorioak kontatzeko duen modua eta aktoreekin lan egiteko duen era. Azaldu duenaren arabera, Sofia Oterori, protagonistaren azalean aritu den aktore gazteari, hasieratik nabari zion emozioak pizteko zuen gaitasuna: “Grabatzen gaudenean oso gauza teknikoek erreparatzen diegu, ez gaude pelikula bat ikusten. Nik, adibidez, aktoreek ura zein segundotan edaten duten eta horrelakoetan jartzen dut arreta. Kasu honetan, momentu oro emozionatzen nintzen Sofiarekin”.

la kasualitatezko ogibidea

“Berandu” hasi zen Patricia Muñoz script lanetan, 30 urteen bueltan, eta ia kasualitatez. Kontatu digunaren arabera, garai hartan Deustuko Ramon y Cajal kalean bizi eta lan egiten zuen eta, halako batean, Euskal Herriko zinema eskola ireki zuten Lu-zarran. Atoan eman zuen izena eta ikasten ari zela Ibarretxe anaien pelikula baterako script bat behar zutela irakurri zuen. la pentsatu gabe izena eman, eta horretan dabil geroztik, proiektuz proiektu.





PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Haragiz betetako hostorea



Soilik asteburuetan aurki dezakegu argazkiko hostorea Deustuko Bordatxo jatetxean. Hala eta guztiz ere, ez da txikia aste barruan barra gainean dagoen pintxo eta razio eskaintza. Probatu nahi? Ez galdu aukera!

Prezioa: 3,5 €

Zailtasuna: txikia

Denbora: Ordubate

Kontu batzuk

Eguneko menua eskaintzen du Bordatxo jatetxeak astelehenetik ostiralera. Larunbatetan eta igandeetan, ordea, asteburuko menua. Horrez gain, berrikuntza bezala, ostegun, ostiral eta larunbat gauean gaueko menu berezia edota razioen karta berria daukate eskuragarri.



BORDATXO JATETXEA

Ramon y Cajal etorbidea, 24
48014 Bilbo

944 47 45 00

bordatxo.eus



Haragiz betetako hostorea

Hasteko eta behin, berakatz, tipula, piper berdea eta piper gorria txikitu behar dira. Behin dena moztuta, barazkiak oliotan frijitu behar dira koñak koilarakada batekin. Ostean, koñakaren alkohola lurrundu denean, okela txikitua eta tomate saltsa barazkiekin elkartu. Ondoren, hozten utzi behar da. Barazkiak eta okela hozten diren bitartean, labea berotzen jartzea komeni da, 240° ingurura. Labea bero dagoenean hostore betea sartu eta 180 gradutan 40 minutuz barruan mantendu.

On egin!

OSAGIAK

- Berakatz*
- Tipula*
- Piper gorria*
- Piper berdea*
- Okela txikitua*
- Hostore plaka*
- Koñak koilarakada bat*
- Tomate saltsa*



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean

**ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO**

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



DANEL ABANDO OLABARRI
Irakurzalea

Laboa II.a

Pasilooan barrena noa, presaka, irakasleok eskola-ordu batetik bestera joateko dugun atzerako kontaketa eroan. Halako batean, nire ikasle bat topatu dut ikasgelatik kanpo; bota didan begiradagatik berehala jakin dut bertan izatearen arrazoia ez dela ona. Agurtu egin nau, baina aurpegira begiratu barik.

-Zer, zertan zabilta hor kanpoan? Zigortuta, ala? -galdetu diot.

-Bai, maisu -hark, erdi-lotsatuta. Nahigabe, irriak ihes egin dio- Eske, andereñoak galdetu du ea nor den Mikel Laboa, eta, brometan pelotari bat dela erantzun diodanez, belarritik hartu eta kalera bota nau! -Orain ni naiz barreari eutsi ezinik dagoena.

Hezkuntzaren baitan egiten den kultura-transmisioa sekula ez da izango eginkizun erraza, are gehiago gurea bezalako herri batean, zeinetan oraindik ere mendeetan zehar jasandako zapalkuntzaren ondorioak pairatzen jarraitzen dugun. Frankismoak, adibide baterako, hasiera-hasieratik jakin zuen Estatu Berriaren sorreran kultura (eta ondorioz Hezkuntza) izango zuela gudu-zelai garrantzitsuenetarikoa bat. Horrexegatik burutu zuen euskal maisu-maistren garbiketa, jarraian irakasle euskaldunak kanpotik ekarritako maisu-maistra erdaldunekin ordezkatzu.

Ez gara gu frankisten antzera arituko; ez zigorrik, ez eraztunik, ez jipoirik. "Ikasiko dik gogorak, dantzaten baduk zigorra", dio irakaskuntza tradizio zaharrak, Francisco Goyaren margoak maisuki islatu bezala. Guk, ordea, hobe genuke irakasbideak gaurkotu, eredu pedagogiko ezberdinak aztertu eta gure errealitatera egokituko bagenitu. Ikasleei euskal kultura maitatzen irakats diezaiegun, ekintzen bidez, erdua emanez, gure kulturak eskaintzen dituen lore ederrenak eskainiz. Eta, tira, zergatik ez, egoerak hala eskatzen duenean... belarrietatik tira eginez!

Doinua: Hizkiak eta piztiak



MAITE SARASOLA ISAZELAIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Bazkari eder batekin
Aferak bukatu da.
Mambo eguneko hitzaldi
Ta saioaren freskura.
Urteroko jaietako
Aitzakiaren kontura.
4 bertsolari etorri
Zitzaizkigun kantura.
Belardiak margaritzaz
Bete diren modura.
Udaberria bertsoan
Iritsi da Deustura.

Beste zita aipagarri
Bat daukagu kolpeka.
Maiatzean hasiko da
Bizkaiko txapelketa.
Lehia da nagusi baina
Hau nire hausnarketa:
Ahaztu epaimahaien paper
Eta puntuaketa,
Barrutik kantatzea izan
Dadin norbere meta.
Gozatzera joan ezean
Zentzurik ez du eta!



Hainbeste urtez euskaraz landuz
Deustuko mila gako
elkarrizketak, artikulua
hile amaierarako
erreferente bihurtu zaigu
lehen genuena nobato
aleetan ez da izerdi, gogo
eta mimorik faltako
Deustualdeko aldizkaria
beharrezko dugulako
PREST! betidanik izan ez bada
izan dadin betirako
hogei beteta eta PREST! gaud
beste hogei urterako

PREST!

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaituz BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta
Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzue opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com



Berbaizu
— euskara elkarte —

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!

PREST! aldizkarian idatzi nahi duzu?



**Auzoan egiten diren ekintzen inguruan,
zure taldeak antolatzen dituen ekimenen
inguruan, kezkatzen eta harritzen zaituzten
gauzen inguruan, kolektiboan zein indibidualki
idatzi nahi baduzu...**

Zure bila gaude!

**Idatzi bilbokoaldizkariak@gmail.com helbidera
edo deitu 94 447 10 42 telefono zenbakira**